

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtzionatzeko hainbat baliabide garrantzitsu behar ditu. Baliabide hauek laguntzen digute gure balio-proposamena garatzen, bezeroengana heltzen, haiekin harreman ona izaten eta diru-sarrerak sortzen.

Baliabide fisikoak: Proiektua egiteko gela bat behar dugu lan egiteko, ordenagailua eta telefonoa, eta espazio hori erabiltzeko materialak, diseinuak eta proiektuak prestatzeko.

Baliabide intelektualak: Gure ideiak eta sormena dira funtsezkoak. Gure ezagutza eta planak laguntzen digute webguneak diseinatu eta proiektua modu profesionalean aurkezten.

Giza baliabideak: Taldeko kide bakoitzak trebetasun desberdinak ditu. Unaxek sormena ekartzen du, Iriak informatikako eta webguneak egiteko ezagutza, eta Askoak eta Aitorrek salmentak eta antolaketa ondo egiteko gaitasuna. Horrek guztiak proiektua martxan jartzen laguntzen digu.

Finantza-baliabideak: Proiektua hasi eta mantentzeko gure aurrezkiak erabiliko ditugu. Horrela, baliabide ekonomiko nahikoa izango dugu hasierako gastuak ordaintzeko eta proiektua funtzionamenduan jartzeko.